



Izenburua: **Irunberri, 1990: Arroilaren negarra**

Egilea: **Pako Aristi**

Bilduma: **Lekuko, 17**

Formatua: **160 x 240 mm**

Orriak: **272**

ISBN: **978-84-9109-866-9**

Salneurria: **22,00 €**

Irunberriko kasua oso konplexua da, batetik bere iraupenagatik: hogeit hamar ordu iraun zuen operazioak hasi eta buka. Eta bestetik lekuaren ezaugarriengatik: herritik aparte, etxerik ez dagoen lekuan, sartu-irten egiteko bi tunel bakarrik dauzkana. Orografia hori lagungarri izan zuen Guardia Zibilak hura erabat ixteko eta operazioa sekretu guztiarekin burutzeko. Operazioan zehar sortu zen informazio guztia Estatuaren esku dago, eta ezinezkoa zirudien kasu honetan argi txiki bederen aurkitzea. Baina lortu dugu, eta hori aurkeztera gatoz gaur hona.

Batetik kontakizuna berritu eta antolatu dugu, garai hartan gezur eta faltsukeria asko zabaldu baitzen. Eta bestetik, benetan zer gertatu zen ongi fundamentatzea lortu dugu. Kasuari buruzko zertzelada zehatzak, ordutegiak, lekukoak eta abar liburuan jasota daude. Aurkezpen hau ez luzatzeko funtsezkoak diren frogak, ondorioak eta emaitzak agertuko ditugu hemen.

Ezer baino lehen garrantzizkoa da hau jakin dezazuen: Espainiako Barne Ministerioak suizidioaren tesia defendatu bazuen ere, justiziak atzera bota zuen. Handik bost urtera, 1995ean, German Rubenach epaitu zuten, Susana Arregi hiltzeaz akusatua, eta Auzitegi Nazionalak errugabe zela erabaki zuen. Sententziaren arrazoibidean deklaratu du ez dagoela froga bakar bat ere Germanen aurka, ezta pertsona haiek suizidatu egin zirela frogatzen duenik ere: “fiskalak aurkeztu duen guztia usteak dira, susmoak, zantzuak... froga sendorik ez”. Eta sententzian dio: Ez da frogatu nola eragin diren bi pertsona hauen heriotza ekarri duten zauriak, ezta auziperatuari ondorio larriak utzi dizkietenak ere.

Baina suizidatu ez badira, nork hil ditu? Nork eman dizkio Susanari bi tiro? Hor Entzutegi Nazionalak galga jartzen du, eta ez du abiatzen hori argitzeko ikerketarik. Epaitesia esatera dator: suizidioa asmakizun bat da! Eta hankaz gora botatzen du ordura arte iraun duen bertsio ofiziala. Baina ez du ikerketarik agintzen, suizidioaren orde zert gertatu den jakiteko, ez delako zaila ikusten ikerketa horren buruan estatu krimen bat egon litekeela.

Justizia erakundeetan frogatzen ez dena ez da existitzen. ‘Egia judiziala’ deitzen zaio, eta Irunberrin ez dago suizidiorik. Hala dio justizia espainolak. Espainiako gobernuak, bere baliabide guztiekin, ez zuen suizidioa frogatzerik lortu.

Bertsio ofiziala asmakizun bat baldin bada, zer ezkututzen du? Gure ikerketak bi oinarri izan ditu. Batetik sumarioa lupaz begiratu dugu, deklaratu zuten indar armatuen kontraesanen bila, eta asko aurkitu ditugu, eta funtsezkoak. Bestetik lekuko berriak aurkitu ditugu, eta garai hartan klabea izan zen lekuko zahar bat 33 urte desagertuta egon ondoren: Holandako Marian Husken kazetaria, gauza berriak eta erabakigarriak esan dizkiguna.

Bera izan zen etakideak bizirik ikusi zituen azken pertsona zibila, tiroketa izan eta minutu gutxira. Militanteek autorik ba ote zuen galdetu zioten, eta berak ezetz esanda sasi artera ezkutatu ziren berriro. 2018an liburu bat idatzi zuen nederlanderaz, eta bertan Irunberriri atal bat eskaini zion, 10 orritako lana, guri bidali ziguna.

Kontakizun ofizialaren atzealdea edo negatiboa aztertu dugu, eta horrek nahiko froga eskaini digu bestelako kontakizun bat antolatzeko. Ez dugu ezer asmatu; denak dauka bere oinarri dokumentatua.

Hiru atal dauzka kontakizunak:

- 1.- Tiroketa ondoren militanteak ihesi ezkututzen diren arte.
- 2.- Hurrengo 20 orduko arrolaren itxitura.
- 3.- Handik 25 egunera poliziak martxan jarri zuen operatiboa.

1. Atala. Kontakizun objektiboa.

Bertsio ofizialaren oinarri guztia eguerdiko tiroketan finkatua dago, eta dio: Etakideak ez genituen harrapatu. Zergatik? Han zeuden hiru agente Zangozako osasun etxera abiatu zirelako. Dominguez Piris oso larri zaurituta zegoen, bala bat zeukan ipurmasailean. Arroila hutsik laga zuten, eta militanteek ihes egin zuten. Libre zeuden, horrela soilik baita posible suizidatzea.

Pirisek bi aldiz aitortuko dio epaileari ez zuela tiro egin, normala, larri zauritua baitzegoen. Corcuerak aipatu zuen Kongresuan odol asko galdu zuela.

Kontakizun hau gezurra da. Bederatzi dokumentu daude zauri horri buruz sumarioan, eta ez da inon odolik aipatzen, ez Zangozako osasun etxeko txostenean, ez Piris beraren deklarazioan ere; soilik agente batek aipatzen du odola, bere bigarren deklarazioan, Corcuerak datu hori aitortu ondoren.

Baina ez hori bakarrik: tiroketa ondoren ehun ume igaro dira handik, eta 12 begirale, Gasteizko eskola batekoak, eta inork ez du odolik ikusi. Gero joango diren epaile, mediku, apaiz eta abarrek ere inork ez du odolik ikusiko. Arratsaldean hara eramango dituzten kazetariek ere ez. Ez da existitzen Pirisen odol putzurik. Zauria ordu bete eskaseko ebakuntzarekin itxiko diote.

Handik urte batzuetara 'Historia del terrorismo en Navarra' liburuan Pirisi berriro galdetzen diote ea tiro egin zuen, eta oraingoan BAI erantzuten du. Eta kontatzen du tiroka aritu zirela etengabe. Eta beste datu bat ematen du argitara: 'Arma luzeak geneuzkan autoetan'.

Agente hauek diote ez zirela jaitsi Hervas sarjentua nola zegoen ikustera; baina Zangozan Pirisi galdetzen diote nola dagoen sarjentua, eta dio: 'Han dago bi tiroekin hilda'. Eta hala da, bi tiro dauzka, ez bat, ez hiru. Beraz, militanteen atzetik doazen bitartean haietako bat Hervasengana jaitsi da.

Marian Husken Holandako kazetariak ere deklarazioa aldatu du. 1990an esan zuen tiro hotsak entzun zituela, harantz abiatu zela eta hiru gazte etorri zirela berarengana. Baina 2018an atera zuen liburuan dio tiroak entzun, hara abiatu eta agenteak ikusi zituela, fusilak sorbaldan kokaturik militanteei tiroka. Eta hauek harengana iritsi zirenean segituan etorri zela atzetik poliziaren ibilgailu bat, horregatik jaitsi zirela berriro sasi artera. Baieztatzen du agenteek fusilak hartu zituztela, etakideei jarraitu zietela tiroka, eta autoan gero. Eta esaten du: 'Agenteek ikusi gaituzte etakideekin hitz egiten'. Lehen minututik poliziak badaki non dauden etakideak.

Agenteak ez dira joan Zangozara, arroila barrura baizik. Ez dute arroila hutsik laga, eta lehen minututik dakite non dauden etakideak. Gasteizko begiraleek diote haiek arroila zeharkatu bitartean hiru auto igaro zirela, poliziaren auto sekretuak. Arroila ez da inoiz hutsik egon.

Pirisen zauria da gezurraren mekanismo guztia sostengatzen duena, militanteak harrapatu ez izanaren kausa. Hori ezabatzen badugu, eraikuntza osoa hankaz gora erortzen da: zauria larria ez denez, ez dute ospitalera joateko presarik; iheslariei jarraitzen diete, inguratu, eta laster iritsiko diren errefortzuak itxaron. Metrailetak dauzkate, eta bi ibilgailu; besteek hiru pistola soil, kargadorerik gabe. Hervas ahaztu gabe: akademian ikasia dute enfrentamenduko lehen araua zauritua sorostea dela, bizitza salbatzerik balego ere.

Desmuntatu dugun beste gezur bat Germanen belauneko zauriarena da. Prentsa guztiak esan zuen tiroketan zauritu zutela. Baina Corcuera ez zuen halakorik esan Kongresuan; soilik buruan tiro bat zeukala, eta beste bat belaunean. Hori esan balu, Huskenen bertsioa baliogabetuko zuen, eta holandarraren hitza erabili zuen 13 aldiz bere hitzaldian; hura zen froga esateko 'militanteak libre daude, eta bizirik daude'.

Alabaina, holandarrak korrika etortzen ikusi ditu hirurak, eta korrika joaten. Inork ez dauka hankan zauririk. Holandarrak bere liburuan ere berretsi du German korrika zihoala, eta, azken aldiz, guk idatzi genion gutun bati erantzunez ere berriro baieztatu du datua. Hiru aldiz dio Germanek ez duela hankan zauririk. Eta datu honek galdera latzari irekitzen dio atea: German korrika ezkutatu bada, nork eman dio ilunabarrean aurkitzen dutenean eskuin belaunean daukan tiroa? Suizidatzera doanak ez baitu lehenengo bere belauna zulatzen.

Helikopteroen presentzia etengabea da egun osoan. Corcuerak airean dabiltzala dio, besterik ez, baina Gasteizko umeek ikusi dute euren aurrean helikopteroa lur hartzen, eta barrutik GAReko gizonak jaisten. Uste dugu militanteak arrolatik ateratzeko erabil zezaketela, garbi baitago ordu guzti horietan ez daudela arrolan, lehen aipatu dugun jende andanak (epaile, mediku, kazetari eta abar) arrola zeharkatzen baitu alderik alde, eta ezinezkoa da hiru gaizkile armatu eta arriskutsu dauden lekura hainbeste jende sartzen uztea. Hervas Ledeko tuneletik gertu dago, eta zuhurtziaz handik sar zitzaketen, baina ez; Irunberritik daramatzate, eta arrola oso-osorik zeharkatu behar dute horrela. Oso seguru daude. Ahaztu gabe umeak ere handik pasarazi dituztela.

Handik eraman dituzte militanteak, ez dakigu nora, gero berriro hasierako lekura ekartzeko, hilda edo bizirik, bertan suizidioaren tesia antzezteko.

Halere, muturreko hipotesi batean suizidioa posible litzateke? Ez. Bat: orduan ez legoke hainbeste gezur asmatu beharrik. Bi: ezinezkoa da hainbeste gizonen hainbeste ordutan ez aurkitu izana, arrolaren neurriak ezagututa: kilometro eta berrehun metro luzeran, hamazazpi metro bidetik ibaira, sumarioak berak dioenez. Hiru: Jon Lizarralde tiroaz at ibaiko ura dauka birika eta urdailean, Susanak bi tiro dauzka buruan. Lau: militante zailduak ziren, urte asko zeramatzaten ETaren egitura militarrean, diziplinatuak ziren, mentalki ongi prestatuak eta etorkizunean gerta zitekeenaz jakitun: tiroketa batean hil edo atxilotuak izan. Bost: Xabier Goldaraz haien laguntzaileak baieztatu digu haien bileretan inoiz ez zela suizidioaren aukeraz hitz egin.

Jon Lizarralderen pistola da atxilotu egin zituztela salatzen duen beste frogatik: 13 balatik bakarrik falta zuen, bere burua zeharkatu zuena. Baina balistika txostenak esango du Hervas sarjentuaren gorputzean dauden bi bala, eta Pirisen ipurmasailetik atera dutena Jonen pistolakoak direla. Beraz, Jonen pistolak bederatzi bala eduki behar zituen. Manipulatu egin dute. Hura kargatu zutenek ez zekiten falta ziren hiru bala haiek agenteen gorputzetan agertuko zirenik.

Azkenik: atxilotu zituztenean, zergatik ez kuartelera eraman lasai galdekatzera? GAR sortu zenean aldatu zen galdeketa estrategia. Haien abiatu zuten atxiloketa lekuan bertan galdeketa egiteko ohitura. Zergatik? Ez zutelako komandoa bakarrik nahi, laguntzaile talde osoa baizik, komando berriak birstortu ez zitezten. Lehenbailehen galdeketa abiatuak, denbora irabazten zuten: laguntzaileen datuak eskuratzeko, batetik; eta, bestetik, albistea berehala zabaldu eta laguntzaileek ihes egin ez zezaten. Hain zuzen, ondorengo zortzi urtetan ez da ETak hildakorik izango Nafarroan.

2. Atala. Kontakizun espekulatiboa.

Galdeketa eta tortura prozesuek ez dute lekukorik izaten. Guk ere ez dugu lortu testigantza garbi bat esanez ´militanteek besoak altxa zituzten eta entregatu egin ziren´. Ia inoiz ez da izan halako lekukorik. Baina eskubide osoa daukagu gure bertsioa plazaratzeko, eta eskubide hori Espainiako estatuak berak eman digu. Batetik, berak frogarik gabe zabaldu zuelako suizidioaren istorioa; eta bestetik dagoen informazio guztia ebatsi digulako, ez digu bat ere lagundu egia jakiten, eta horrek eskubidea ematen digu egia irudikatzeko, betiere oinarri sendo batzuekin. Eta gure bertsioarekin ados ez balego, erronka jotzen diogu ager dezan gorderik daukan informazioa, aztertu dezatela historiagile eta ikerlariek, eta horrela bi bertsioen arteko dema amaituko litzateke.

Galdeketa nola izan zen? Militanteek bost tiro dauzkate: Germanek bi, bata belaunean eta bestea buruan, masailezurretik gora bekokitik ateratzen zaiona, Susanak beste bi buruan, ezkerretik emanak, lehena 30 zentimetrora, bigarrena azal-kontra, bera bizitza osoan eskuinaz manejatuta zenean. Jonen tiro bat dauka buruan, eskuinean, eta Irati ibaiko ura biriketean eta urdailean. Autopsiak dioenez, Jon eta Susana arratsaldeko ordu biak eta laurak bitartean hil dira, beti ere hiru orduren akats-tartearekin. Baina ordu horietan arroilan daude medikua, erizaina, epailea, praktikantea eta abar, eta inork ez du tirorik entzun. Guk uste dugu arratsaldeko zazpiak eta erdiak aldera hil dituztela, kazetarien bisita bukatu eta arroila libre geratu denean.

Lehenengo Germani egingo zioten tiro belaunean, gero neskari bi aldiz, mutilak ikartzeko. Germanek aipatzen du ospitaleko galdeketa batean: ´Neska ez dala hiltzen´. Ikusi egin zituen Susanaren tiroak. Gero ziurrenik Germani eman diote masailezurretik gora, Jon izutzeko, eta azkenik hau ito egin zaie ibaian. Eta itota dagoelarik tiro eman diote buruan.

Autopsiak dio Susanaren tiroak hirugarren pertsona batek eman dizkiola; Barne Ministerioak Germani leporatzen dizkio; baina Entzutegi Nazionalak errugabe izendatzen du. Orduan, nork eman dizkio Susanari bi tiro buruan? Atxilotu zituztenetako norbaitek izan behar du derrigorrez.

Uste dugu zortziak bueltan hiru hilotzak jasotzeko prest daudela: epaileari deitu, eta denak etxera. Baina German mugitzen hasten da lurrean, eta dilema agertzen zaie: Zer egin? Hari ere beste tiro bat? Gehitxo izango da hark ere bi tiro edukitzea. Zalantza eta eztabaida izango da buruzagien artean, eta azkenik anbulantziari deitzen diote German ospitalera eramateko. Eta beste hilotzen aurkezpena biharamunerako atzeratzen dute.

Uste dugu operazio guztia konfiantza handiko agente talde txiki batek kudeatu zuela, eta beste guztiek arroilan sakabanaturik antzezpen bat osatu zutela.

3. atala. Kontakizun deduktiboa.

Irunberri ondoren Nafarroa komandoari buruz poliziak zeukan informazioa hazi egin zen, sekulako gorakada izan zuen. Aurretik ez zekiten ezer: sei hilabete lehenago Villoslada bahitua eduki dute, 300 milioi pezeta kobratu ondoren aske utzi dute, eta poliziak ez dauka pista bakar bat ere non eduki duten.

Irunberri baino bi hilabete lehenago sei granada jaurti dituzte gauaz Lekunberriko kuartelaren aurka. Agenteak eguna argitu arte ez dira kuarteletik ateratzen ausartu.

Irunberri baino hiru aste lehenago polizia nazional ohi bat hil dute droga-trafikatzailea delakoan. Irunberrin bertan poliziak ez dauka ideiarik ere hiru gazte haiek zeintzuk diren, eta hori astebete daramatelarik bertan. Eta kuartel txiki bateko sarjentua jaisten da haiengana, udako alkandora arin batekin eta pistola simple batekin nortasun agiriak eskatzera. Poliziak ezagunak balitu aktuatu egingo zuen haien aurka, ez zieten ekintzak egiten jarraitzen utziko.

Komandoaren laguntzaileei buruz ere ez dakite ezer. Bederatzi dira guztira. Denek jarraitzen dute bizitza normala egiten. Irunberri baino bi hilabete lehenago Espainiako Txirrindulari Itzulia sabotatu du Tafallako taldeak, eta poliziak ez du pista bakar bat. Irunberriko gertaeren gauean denek ihes egingo dute etxetik. Poliziak ezagunak balitu ez ziren Espainiako Itzulia hankaz gora jartzera iritsiko, Espainiaren irudi txarra nazioartean zabalduz.

Irunberri ondoren informazioa ugaritu egin da poliziaren eskuetan: badakite Villoslada eduki duten zuloa non dagoen; badakizkitez bederatzi laguntzaileen izenak eta helbideak; eta badakizkitez komandoak laster egin behar zituen ekintzak: Roldani Iruñeko zezen plazan eman nahi dioten tiroarena, eta Leitzarango autobioako obrak zaintzen dituen helikopteroaren aurka bota nahi duten misilarena. Prentsan agertzen da uztail hartan bertan.

Irunberri aurretik ezer ez dakite, Irunberri ondoren dena dakite: informazio uholde bat daukate eskuetan. Nondik atera da? Laguntzaileen zerrenda riñoñera batean dago, eta laguntzaileetako batek darama gau hartan bertan. Egun gutxira ETAko zuzendaritzan entregatuko du, eta han erre egingo dituzte paperok.

Beste informazioa, Villosladarena, Roldanena, helikopteroarena ez dago inon idatzia. Goldarazek liburuan aitortzen duen bezala, 'horien berri bost pertsonak bakarrik genekien: nik, Juanjo Zubietak eta Irunberriko hirurak. Nik eta Juanjok ihes egin genuen...'

Non aurkitu du poliziak hori guztia? Irunberriko arroilan; militanteak harrapatu egin dituzte, eta galdekatu.

Etakideak suizidatu balira informazio hau ez zen existituko. Esanguratsua da Lorenzo Silvaren 'Sangre, sudor y paz' liburuko esaldia: 'El comando Nafarroa llevaba años operando en la Comunidad Foral sin levantar sospechas sobre sus movimientos'. Pista bat bera ere ez.

Beste froga asko daude liburuan bertsiio ofiziala suntsitzen dutenak. Esaterako, Marian Huskeni espia espainol bat agertu zitzaion etxeko lorategian EGINEKO kazetaria zela esanez, ea beste bertsioren bat kontatzen zion. Beste bertsiio bat bazegoen, beraz!

Epilogo

Ez da ETA historia honen gaia. Ezta Guardia Zibila ere. Historia honen gaia Zuzenbide Estatu da. Historia honetan kontatzen da estatuak ez zuela hiritar batzuk babesten jakin: edo ez zuen nahi izan, edo ezin izan zuen. Hiritar hauek atxilotu egin behar zituzten, epailearen aurrera eraman, eta, hala ebatziz gero, ezarritako kondena bete.

Zuzenbide Estatuak unibertsala izan behar baitu ezarrita dagoen lurraldeko biztanle guztientzat. Hor datza bere zilegitasuna. Ezin du diskriminaziorik egin pertsonen artean, bakoitzak duen historialaren arabera. Ezin du esan: hau homosexuala da, hau ijitoa, hau terrorista, ez diot legea aplikatuko. Unibertsala izan behar du, baita Estatuaren aurka oldartzen direnekin ere. Ez bazaie denei aplikatzen, desafio egin diotenak eliminatzen hasten bada Zuzenbidezko Estatu izateari uzten dio. Eta Irunberrin Zuzenbide Estatu desagertu egin zen hogeitaz hamar orduz.

Ikusi izan dira exekuzioak gero tiroketa gisan mozorrotuak, baina Irunberrin pauso bat gehiago eman zuen, biktimak euren buruen biktimario bihurtuz.

Bi auto-inkulpazio ere badaude liburuan. Hilabete gutxira Koldo Gracia Tafallakoa atxilotuko dute, eta epailearen aurrera doala komisarioak ostikada bortitza bat emango dio, esanez: '*!Espero que te pudras en la puta cárcel, y para que no te quede ninguna duda de por vida, que sepas que a los de Lumbier los matamos nosotros!*'.
'

Xabier Goldaraz 1992an atxilotuko dute. Autoan sartu orduko agenteak kolpeka hasi zaizkio, eta haien buruak bota dio:

‘!Hijo de puta, vas a morir como tu compañero Jon Lizarralde, ahogado en el río. Vas a desear no haber nacido!’.

Azkenik: Nork hartu zuen Irunberrin erabakia, non hartu zen? Suizidioarena hasieratik planifikatua zuten, edo galdeketa trakets baten estalgarri gisan asmatu zuten?

Honek dilema baten aurrean jartzen du Estatua:

A: Istripu bat izan da, Jon itota hiltzea, adibidez, eta ondorengo heriotza hori disimulatzeko muntaia bat baino ez zen izan.

B: Galdeketak bere fruituak eman ondoren, bukaera hori emateko agindua dute goitik, ez dakigu hierarkiaren zein estamentutik.

Bien arteko aldea izugarria da, zeren:

A aukeran Estatua krimen baten konplize litzateke, delitu-estalketa litzateke haren aurkako kargua.

B aukeran, aldiz, Estatua krimen baten bultzatzailea litzateke, eragilea.

Irunberrikoa Estatu krimen bat izan zen, ala Estatuak babestutako krimen bat?

Bertsio ofiziala goitik behera asmakizun bat dela frogatzeko aski litzateke sumarioko kontakizuna berritzea arroilan bertan, bere garaian egin ez zena: jarri bi panpina militanteak hilda agertu ziren lekuan, eta jarri, demagun, 40 pertsona haien bila, ea zenbat denboran aurkitzen dituzten.

Ikerketa hau lehen pauso bat baino ez da izan. Aurrerago izan litezke nobedade gehiago, batez ere Aranzadik eskura eman diogun material guztia aztertzeke denbora izaten duenean.

Pako Aristi
Donostia, 2023ko apirilak 21

Pako Aristi (Urrestilla, 1963). Kazetaritza lizentziatua da. 21 urterekin atera zuen bere lehen nobela, *Kcappo* (1985), eta geroztik idaztera dedikatu izan da, kazetaritza baztertu gabe. Genero asko landu ditu. Narratiban beste lau nobelaren egilea da, *Irene*, *Krisalida*, *Urregilearen orduak* (Espainiako Kritika saria, 1998) eta *Rosa itzuli da. Auto-stopeko ipuinak* ere idatzi du, eta liburu berezi batzuk ere baditu generoen mugak hautsiz eginak: *Gauza txikien liburua* eta *Note book*, guztiak Erein argitaletxean. Haur literaturan ere oparo jardun du.

Ni eta Gu poesiako zazpigarren liburua da. Aurrekoak dira: *Castletown* (1996, Erein), *Oherako hitzak* (1998, Erein), *Libreta horiko poemak* (2003, Susa), *Urari ostutako poemak* (2014, Susa), *Arrotz eta eder* (2016, Susa) eta *Maitatu zure egunak* (Erein, 2018), ahaztu gabe Koldo Izagirrek apailatutako “XX. mendeko poesia kaierak” bilduman Aristiren poesiagintzari eskaini zion antologia.

Euskal Herriko gatazkaren testuinguruan, pertsona asko hil dira hamarkada luzeetako indarkeria eta konfrontazio armatuaren ondorioz. Gure geografian hainbat indarkeria egon dira, giza eskubideen urraketa eragin dutenak; mina eta sufrimendu handia.

Indarkeria zehatz baten biktimek, dagokien aitortza ofiziala jaso zuten eta Legeak ematen dizkieten eskubideak erabili ahal izan dituzte. Estatuak eragindako bortxaren biktima gehienontzat ordea, abiapuntua oso bestelakoa da; urte askotako ukapenaren ondoren, egin zigutenaren egia ezartzeko borrokan jarraitzen dugu, heriotza eta giza eskubideen urraketa bakoitza, salbuespenik gabe, ofizialki erroldatu, aitortu eta erreparatu dadin.

Zehazki, poliziaren indarkeriaren, salbuespenezko espetxe-politikaren, eskuin muturraren, gerra zikinaren, torturaren, FOP edo FSErekin izandako ustezko liskarren ondorioz, hil zirenei buruz hitz egiten dugu. Izan ere, kasu gehiegitan, bertsio ofizialak eraikitzeak, poliziaren ekintza justifikatuz, heriotzak naturaltzat joz edo hildakoa bere heriotzaren erantzule eginez, benetako krimenak ezkutatzeko, erantzuleen zigorgabetasuna iraunkortzeko eta Estatuaren aparatuetatik giza eskubideen kontrako baliatutako bortxa, legitimatzeko balio izan du.

Heriotza horietako askoren inguruan, gertatutakoaren egia itzalez eta argitu gabeko galderez inguratuta dago oraindik, bere garaian ez zirelako ia edo batere ikertu. Martxan jarri ziren ikerketa bakan-bakanen bidea motza, oztopoz betea edo korapilatsua izan zen, batzuen kasuan froga judizialak desagertzeraino, horrela, benetan gertatutakoaren egia ezagutzea oztopatuz.

Urteak daramatzagu bertsio ofizialen kutxa iluna irekitzeko beharra aldarrikatzen. Eusko Jaurlaritzak 2015. urtearen erdialdean aurkeztutako, "Memoriaren erretratuak" izen buru duen txostenak aitortzen du, ikerketa gehiagoren beharra duten kasuak badaudela, eta atal horretan jaso zuten hain zuzen ere, gaur aztergai dugun kasua, 1990ean Irunberrin gertatutakoa.

Txosten hau aurkeztu zenean, esan genuen, kasu batzuen inguruan ikerketa falta onartzea edo aitortzea ez zela nahikoa, Estatuaren menpeko poliziek zein Guardia Zibilak eragindako heriotzen inguruan zeuden arrazoizko zalantzak argitzen lagunduko dituzten mekanismo eraginkorrak abian jarri behar zirela. Egia osoa ezagutzea ahalbidetuko luketen mekanismoak.



Zorionez, 12/2016 Legearen bidez irekitako ikerketen arabera, bertsio ofizialen kutxa iluna irekitzeko beharraren aldarrikapenerako, arrazoi sendoak genituela esan dezakegu. Izan ere, zenbait kasutan agerian geratu den bezala, bertsio ofizialak benetako krimenak ezkutatzeko eraiki bai ziren.

Iazko ekainean, lege honen kudeaketarako izendatutako Balorazio Batzordearen ebazpenaren berri izan genuen. Benito Mujika, Mikel Martínez de Murgia edo Mikel Zabalzari buruzkoa; bizitzeko eskubidearen urraketaren biktima gisa, ofizialki aitortuak izan ziren. Haiek bezala hamarnaka kasu izan dira ofizialki aitortuak bizitzeko eskubidearen urraketaren biktima gisa. Dagoeneko ehundaka dira Poliziak, Ertzaintzak, Guardia Zibilak, eskuin muturrak, Triple A-k edo Batallón Vasco Español-ek eragindako giza eskubideen urraketaren biktima gisa ofizialki aitortutakoak, jasandako torturak edo zauri larriengatik.

Giza Eskubideen arloko nazioarteko legeriak eta Egia Jakiteko Nazioarteko Zuzenbideak, ez dute bereizketarik egiten eskubide horiek urratzen dituen indarkeriaren jatorriaren arabera, ez eta indarkeria hori jasan zuten pertsonen egoeraren arabera ere. Berdina da guztientzat.

Gure ustez, Egiarako Eskubidea ezin da gauzatu beste eskubide eta mekanismo batzuekin, hala nola, informazioa eskuratzearekin eta ikerketa eraginkorrenekin, elkar loturik ez badao.

Egia Ezagutzeko Eskubidea, bere eskubideen urraketa jasan dutenei, hildako pertsonen senideei eta gizarte osoari dagokio, gizarte-adiskidetzaren eta bizikidetzaren demokratikoaren mesedetan beharrezkoa baita.

Beraz, merezi du egia berreraikitzea, izan ere, prozesu honen bidez kasu hauen balizko errepikatzearen aurrean blindatu gaitezke, eta aldi berean, ezinbesteko elementua delako memoria kolektiboa eta gertatutakoaren kontakizuna eraikitzeko.

Pilar Garaialde
Egiari Zor Fundazioko kidea
2023ko apirilak 21